



Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Txikiaren handitasuna literaturan**

Egilea / Autor: **Mariasun Landa**

Saila / Colección: Saiopaperak - Literatura, 21

ISBN / EAN: 978-84-9109-305-3

Salneurria / Precio: 16 € (BEZ barne – IVA incluido)

Orri kopurua / N° páginas: 176

Formatua / Formato: Rustika / Rústica - 14 x 22,5 cm



Lana / La obra

Erpurutxok zuhurtasun handiz bidean botatzen zituen harri kokkorrek nire kasuan folioaren traza dute, solasaldiarena, artikulua edo hitzaldiarena, eta han-hemenka barreiatu dira, *Anaitasuna* eta *Zeruko Argia* aldizkarietan 70eko hamarkadan argitaratzen hasi nintzenetik. Aztarna horiek bidean zehar osatutako arrasto-sail bezala interpretatu nahi nituzke orain, idazle eta irakaslearen bideak lotuko lituzkeen Ariadnaren hari partikular gisa, basoaren sarritasunak, memoriak, denborak batzuetan dena ezkutatzen badute ere. Ohartu naiz, urteetan zehar, eta testuei galbahe osasungarria pasatu ostean, badirela maiz agertzen diren gaiak, egile eta obra erreferentziazkoak, pare bat konbikzio ia errepikakor. Eta baita horiek konpartitzeko desira ere.

Bilketa-lana egiteko gogoia dago liburu honen oinarrian. Pentsatzen dut, adinarekin, denboraren iragatearekin ezinbestean lotutako beharra dela. Baina egia da interesa erakutsi duten pertsonen eskaerek ere lagundu dutela askotan geroratutako proiektu hau azkenean gauzatzen. Galdetu izan didate bere garaian honetaz edo hartaz eman nuen azalpenaz, gozamenaz irakurri zuten artikulua hartaz, berriaz iruditu zitzaizkaien gai baten inguruko ponentziaz, xehetasunak ahaztuak ditudan hitzaldi hartaz. Horiei guztiei eskertu nahi dizkiet beren ekina eta estimua.

Hala bada, behin eta berriro hartuko ditu liburu honek hizpide zenbait gai, haur eta gazte literatura, irakurketa-esperientzia edo literatur testuen sorkuntza. Baita neure idazle-esperientzia ere, alderdi sortzailetik eta autobiografikotik, neure konpromiso feminista albo batera utzi gabe. Beste artikulua batzuek gai berberei heltzen diete baina modu puntual eta heterogeneoagoan, laburtasunetik.